

Gerediagako zuzendaritza da zintzo jokatzeko ari ez dena

Atzo Durangoko Azokaren Zuzendari bezala nire kaleratzeari buruz publiko egin zen notiziaren eta Gerediaga Elkartek zabalduko oharren gaineko nire ikuspuntua helarazi nahi dizuet.

Lehenik eta behin zuzendaritzak nire jokabideari buruz egindako akusazio larria gezurtatu nahi dut. 2011ko udan Gerediaga Elkartearantz lanean hasi nintzenetik guztia eman dut proiektuaren onerako eta zintzotasun osoarekin jokatu, beraz alde horretatik kontzientzia oso lasai dudala argi utzi nahi dut. Egindako lanak eta berauen zintzotasuna baloratzeko hor daude bidelagun izan ditudan proiektukide guztiak, benetan nire lana ikusi duten Gerediaga Elkarteko hainbat kide eta Azokaren eraldaketa prozesuan parte hartu zein gertutik jarraitzeko aukera izan duzuen elkarte eta norbanakoak. Azokaren emaitzak baloratzeko hortxe dugu hemerotea, orain berandu da historia aldatzen hasteko.

Nerea Mujikaren hitzak lekuko “Aurten azokaren egitasmo berrienak finkatu dira” edo “Pausoz pauso goaz baina estrategia ona daramagula ikusten da”

Otsailak 7 osteguna komunikatu zidaten erabakia eta orduan eman zizkidaten arrazoiak hauexek ziren; 1. Etxe barrurako lanak ez nituela egoki egin eta 2.konfidantza galdu zutela nirekiko. Eta orain 3.ez dudala zintzo jokatu? Bada tarte niri pertsonalki aurreko astean komunikatutakotik atzo Euskal Herrira zabalduko mezura. Zergatik bapateko aldaketa hau? Akaso hartutako erabakia nondik hartu ez dagoelako? Erabakiaren dimentsioa kalkulatu ez eta sortutako zalaparta sahisteko? **Eraso pertsonal batekin itxi nahi da auzia, nire pertsonarengan izan ditzakeen kalteetan erreparatu gabe. Jakin baina hau ez dudala onartuko, ez dut nire zintzotasuna auzitan jartzen utziko, Gerediaga Elkarteko zuzendaritza baita zintzo jokatzeko ari ez dena.** Zer da zintzo ez jokatzearen atzean dagoena? Zer esan nahi da horrekin? Zein da Elkartearikiko izan dudana desleialtasuna? Ze egia esan, komunikatuan esandakoa eta ezer ez parekoak dira.

Nire zintzotasuna auzitan jartzen ari diren horiek beraiek dira Euskal Kulturgintzarekin zintzo

jokatzen ari ez direnak. Beraiek elkarlana aho betez lau haizeetara aldarrikatu eta elkarlanaren atzean eredu bertikalen aldeko apustua mantentzen dutenak. Nire ahalegin eta zintzotasun guztia Gerediaga Elkartearten hausnarketan estrategikoak teorian proposatzen dituenak praktikan gauzatzera bideratu ditut; eta horren erakusgarri da koordinazio mahaia. Koordinazio mahai horretan Ahotsenea, Euskara Elkartearen Topagunea, EHAZE, eta Gerediaga bera bildu izan gara hilabetero egitaraua, eduki komunikatiboak eta guztioi zegozkigun hainbat gai adosteko. Horren emaitza bezala inoizko egoera ekonomiko txarrean inoizko egitarau aberatsena izatea. Beraz, hor da talde eta bere emaitza. Zer gertatuko zatekeen horrela funtzionatu ez bagenu? Publikoaren asistentzi aldetik, salmentak, eskaintzaren presentzia... Beraz gezurra da Gerediagak aurpegiratzen didana, hau da, nire proiektu pertsonal bezala hartzea. Euskal kulturgintzak eredu horizontalak eta parte hartzaileak behar ditu, erabaki guneak oinarrietaraino eramanez hala behar den kasuetan. Euskal kulturgintza kalea baita, pertsonak, ideia berriak... Eredu bizi eta izaera dinamikoa duen agentea izan behar du Azokak eta horretarako kudeaketa ereduak ere bizi eta dinamikoa izan behar du; ez duela 40, 30, 20 edo 10 urteko kudeaketa ereduak.

Beraz edonork ondoriozta dezake kudeaketa ereduaren inguruko desadostasunak denboran oso atzetik datozela, lana hasi bezain prontotik alegia. Desadostasunaren ondorioz izandako kaleratzea baina eraso pertsonal batez itxi nahi da. Hemen akusazio surrealista hankaz gora botatzeko beste datu esanguratsu bi. Lehena, atzo bertan argitaletxei helarazitako oharrean azken erabakian beraien balorazioak zuen pisua azpimarratzen zen (4.balizko arrazoia), ordu batzuk beranduago prentsan publiko egin den betsiotik oso urruti. (Hemen Aipatzekoa Zuzendari bezala ez dudala Durangoko Azokaren balorazioak irakurtzerik izan, Gerediaga Elkarteko zuzendaritzak espreski debekatu baitzigun sarbidea neroni eta lan taldeari).

Bigarrena; uste baino galera ekonomiko handiagoak izan direla aipatzen da, galera horien ardura nire gain egongo balitz bezala (5.balizko arrazoia). Kasu honetan ere oso lasai diot ez dudala inongo zerikusirik aipatzen diren galerekin eta txarrean ere galera hori arintzen lagundu dudala. **Ziur merkatu tendentziek, krisi orokorrak, Gerediaga**

Elkarteko kudeatzaileak zein euskal kulturgintzaren inguruan aplikatutako politika desegokiek erantzukizun handiago dutela. Nire aldetik esan, 2011koa baino aurrekontu murriztagoarekin inoiz baino gehiago egitea lortu dugula, eta egitarauari begira zer esanik ez, sekulako zabalena izan baita Azokaren 47.edizioak ezagutu duena.

Guzti honen atzean zer dagoen jakin nahi duenak hemen du hitz gakoa; boterekeria. Euskal Kulturgintzaren kate osoak parte hartutako hausnarketa estrategikoak utzitako emaitzek hala eskatzen zutelako bultzatutako eredu parte hartzaile horizontala eta eredu bertikal zaharkituaren arteko talka da arrazoa. Ohiko erabaki guneak kolokan ikusi eta elkarlana subkontrata ere duan kudeatuko ez nuela konturatzean martxan jarritako kanpaina, hau da, 2012ko maiatzetik martxan zegoen kanpaina. Gerediaga Elkartearen Zuzendaritzak Azokaren kontrol osoa izatearen sentsazioa berreskuratzeko hartu den erabakia da beraz. Hauxe nire egia.

Bukatzeko Euskal Herri osoari Durangoko Azoka babesteko deia luzatu nahi diot. Azokaren proiektuak Gerediaga Elkartea eta berau kudeatzen duten pertsonen baino dimentsio handiagoa baitu. Euskal kulturgintzaren transmisiorako elementu estrategikoa da. Euskal kultur sorkuntzaren industriarentzako ere elementu estrategikoa da. Aldi berean, izaera bizia duen proiektua dugu, indarrak metatzeko balio behar duena, proiektuak konpartitzeko, euskal kulturgintzako agente desberdinen arteko sinergiak bilatzeko eta hain mingarri zaigun atomizazioari aurre egiteko. Ez sinistu Gerediaga Elkartean, ezta ere Aiert Goenagarengan, baina sinistu Durangoko Azokarengan.

Aiert Goenaga Anakabe

Zuzendari oiha